

KAROBI EZTEIAK

Gaua hotza izan zen, hotzegia urriaren hasiera izateko. Eguna argitzen hasia zen eta dagoeneko lehenengo argi izpiek agerian uzten zuten behe-lainoa sartua zela beheko santa Lutzia bailaran. Zerbait gorago, aldiz, Igartubeiti baserriaren inguruan, eguna eguzkitsua zetorrela antzematen zen, zerua oskarbi ikusten baitzen, izarren azken dirdirak oraindik ikusgai. Udazkena izanik ere, orbelaz betetzen hasia zen alboko pagaditik haizeak zozoaren txio-txioa zekarren.

Mendi magalean, Igartubeiti baserriaren atzealdeko belazean, karobia zegoen, lau bat metro alturako eskuz egindako zuloa. Karobiaren paretak bi metro zabalerakoak ziren gutxi gorabehera eta lurran bertan hondeatuak zeuden. Horietako pareta batean, kanpoaldera ematen zuen bakarra eta zorua aldean irekidura bat zuena, Pedro Arregi, 16 urteko gaztea, beste 6 anai-arreben artean zaharrena, lo hartua zegoen egurrekin egindako estalpe baten azpian.

Geldirik, lo zela, Pedrok paisaiaren parte zirudien. Aurpegia beltztua izan arren, irribarre inozoa antzematen zitzaion, amets gozoetan ibiliko balitz bezala. Gozo eta bero zegoen, ardi-larraz egindako estalki bati esker, baita karobitik ateratzen zen berotasunari esker ere.

— *Jaiki adi, motel!! Ez al duk ikusten sua itzaliko zaikela!!* — bere aitak ohikatu zion ondoko baserritik korrika hurbiltzen ari zela.

Ametsetatik bat-batean esnatuz, Pedro ziztu bizian tente jarri eta ondoan zeukan kirten luzeko hortz bikoa eskutan hartu zuen. Jarraian, belaunikoz jarri zen karobiaren aho-zuloaren ondoan. Horrelako egoerei premia erantzuteko prestatua zuen otearen sastraka batzuk hartu zituen eta zuzenean zuloaren barrura bota zituen. Hortz bikoarekin guztiz lehortua zegoen sastraka labe barruraino sartu zuen. Horrela, instant batean sugarraren soinua eta distira itzuli zen labe sarreraino.

— *Aizak, gogoratu labearen tenperaturak altua izan behar dikela lau egunetan zehar. Bestela, egindako lan guztia alperrik izango duk* — pago eta haritz enborrak semeari eskura ematen zizkion bitartean.

Labearen egur karga denbora tarte baterako hornitua utzi zutenean, tentsio unea atzean gelditu zen eta Pedrok beste lasaitasunez erreparatu zion dagoeneko aizkorarekin egurra mozten ari zen gizonari. Altua eta gihartsua zen. Ahotsa sendoa zuen. Hitz gutxikoa zen baina hitza hartzen zuen bakoitzean arreta guztia bereganatzen zuen, inguruko zozo,ugar edota haizearen hotsa ixilarazten zuen horietakoa.

Aitak aurpegia semearena bezain beltztua bazuen ere, ahoaren parean dirdira bat zuen beti, arto-bizarrez egindako zigarroak ematen ziona. Domingo Arregik zigarroa ahokotik tiratzen zuen bakoitzean ateratako usaina eta hotsa Azpeitiko bere baserritik ekarri zituen Ezkiogara.

Zigarroa erretzeko ohituraz gain, gauza gehiago ekarri zuen Domingok Izazpi mendiaren beste aldetik, besteak beste, kemena eta lanerako gogoa. Baserria handitzearen ekimena, adibidez, berea izan zen, berea eta bere emaztearena, Katalina Kortabarria, anaien ezean Igartubeiti baserriko oinordekoa. Domingoren ezkonsaria oparoa izan omen zen nekazari xume giroan bizi ziren Kortabarrientzat eta horregatik ezkonberriek Katalinaren aldeko familiko baserria modernoagoa eta erosoagoa egin nahi izan zuten.

Egia esanez, baserriaren handitze lanak urte batzuk lehenago Indietatik iritsitako arto landarearen arrakastak bultzatu zuen. Hain zuzen ere, arto landarea primeran egokitu zen gune hezeetara eta Ezkiogan, adibidez, zenbait soroetan artoak dagoeneko garia eta artaxikia ordezkatu zituen.

Artoaren ekoizpena ugaritu egin zen eta arto aleak errotara eraman aurretik irina lortzeko, artaburuak lehortzen utzi behar ziren aste batzuk. Lehortze prozesua leku estali eta ongi aireztatuan egin behar zen eta horregatik senar-emazteak erabaki zuten Igartubeiti baserrian lekua behar zutela lehortegei eta aletegi handi bat izateko. Ordura arte, artoaren uzta batzuk hezetasunagatik alperrik galtzearen eskarmentua bazuten.

Berritze lanaren proiektua aitaren ezaguna zen Martin Jauregi arotz-maisuari eskatu zioten. Martin, jaiotzez, Ernio azpiko Aiztondo bailarakoa zen baina ibiltari aritzen zen eraikin lanak egiten alde batetik bestera.

Ahaztezina zuen Pedrok gurasoek arotz-maisuarekin eraikin berriaren baldintzak idatziz adostu zituzten eguna: berritze-lanak merketzearren, Arregi-Kortabarriatarrek bi urte zeuzkaten beharrezkoa zen material guztia lortzeko — batik bat, habeak, harria, harea, egurra eta kare-bizia. Ondoren, Martinek bi hilabete zeuzkan baserriaren handitze lanak bukatzeko, jatorrizko baserria eta bere eguneroko eginbeharrak ia oztopatu gabe.

Akordioa sinatu ostean, azti-kutsua nabari zitzaion maisua hurbildu zen Pedrorengana eta kare-haitzaren koskor zuri bat eman zion:

— *Mutiko, hau Igartubeiti baserriaren etorkizuneko giltza-harria duk. Horrelako gehiago lortu nahi baduk, gurasoei lagundu karobian eta Igartubeiti suntsiezina bihurtuko duk* — esan zion Martinek.

Pedrok bi eskuak luzatu zituen harri koskorra sendoa eta pisutsua zela pentsatuz. Dena den, segituan konturatu zen harria arina eta apurtzeko erreza zela eta, Martinen agindua jarraituz, kolpe txiki batez harri txingorretan desegin zuen.

— *Harri txingor horiekin, harea eta urarekin nahastuz, harrizko trenkada sendoak lortuko ditiagu eta horrela inork ezingo du baserria bota, ez haizeak ez euriak, ez hotzak ez beroak* — Martinek esan zion bere zaldiaren gainetik, Igartubeiti baserria bolada baterako utzi aurretik.

Segura herrira behin bakarrik joanda zegoen mutiko batentzat, hau da, bizitza osoa baserriaren inguruan eman zuen gazte kurioso batentzat, hitz horiek, lehen unetik, ahaztezinak egin ziren. Horregatik egun hartatik aurrera, Pedroren bizitza kare-haitzak desegiten zituen labe liluragarri horrekin atxikitua gelditu zen.

Albistearen ere eskualde osoan zabaldu zen, labe mota hori aitzindaria baitzen XVII. mende Erdiko Azpeitia, Segura eta Urretxu herriek osatzen zuten hirukian. Zirudenez, karea lortzeko, egurra eta kare-haitza errez, beste lurraldeetan ordurako hasita zeuden labe horiek erabiltzen. Eskualde honetan ekimena guztiz berria zen eta jakinmin handia piztu zen.

Igartubeitiko karobia Ezkioga auzora zihoan bidearen azpi aldean ezartzea erabaki zuten, mendiaren maldaz baliatuz eta Igartza erreka-zulora jaisten zen beste bidexka aprobetxatuz. Horrela, bi bideen artean, goiko bidetik kare-haitza errez bota zuten eta beheko bidetik egurra sartu eta, erretzearen prozesuaren bukaeran, kare-bizia aise aterako zuten.

Karobiaren suak lau egun eta hiru gau zeramazkin piztuta. Azken gauaren iluntasuna nagusitu aurretik, Pedrok azken aizkorakadak eman zituen eta egurra moztuta prest utzi zuen gaua igarotzeko.

Lehen gaua aitak eta semeak elkarrekin pasa zuten karobia etengabe zaintzen. Hortik aurrera, aitak, semearen gogoia ikusirik, ondorengo gauak bakarrik igarotzeko baimena eman

zion Pedrori. Mutikoa arduratsua zen eta karobiaren ekimena bere biziko lana balitz bezala hartua zuen.

— *Hau egina zegok!!* — animoak eman zizkioten elkarri — *Bihar goizean itzaltzen utziko diagu* — esan zion aitak semeari agurtzeko orduan ardi larruz estaltzen ari zela.

Bakarrik gelditu zenean, Pedrok aita eta bera aitzurra, pikatxoia, burniziria eta porrarekin zuloa hondeatzen hasi zireneko eguna berriro ekarri zuen gogora. Inguruko baserrikoak auzolanean ere laguntzera etorri ziren eta denen artean paretak atondu zituzten Martinek eskatu zuen moduan: "*buztinez babestu berotasuna ez galtzeko*".

Igartza errekaen parean harrobia irekitzeko lur eremua aurkitu zuten. Bertatik labean erretzeko kare-haitz zuriaz gain kare-haitz ilunagoa ere atera zuten. Azken hau arbela-harriarekin nahastua zegoenez ez zen errez puskatzen, hori zela eta, oso egokia zen karobiaren ganga edo kupula altxatzeko.

— *Lan guztiaren gakoa gangaren altxaeran zegok* — izan ziren Martinen hitzak.

Horregatik Pedrok oso ondo gogoratzen zuen tentu handiz labearen barrukaldean bata besteari helduta harri handiak jarriz, eraztun moduko bat altxatu zuteneko eguna. Gangak sendoa behar zuen izan, erre beharreko kare-haitzaren zama eutsi behar zuelako. Ganga eroriz gero, dena pikutara joango zen baina beraiek, karobia piztu eta bigarren egunerako, ke zuria desagertu zenean — kare-haitzak zuen hezetasuna bukatua zela adieraziz — arnasa hartu zuten gangak harri guztien zama egonkor eusten zuela ikusi zutelako.

Loak hartzen ari zela, oroitzapen guzti hauek Pedroren buruan zebiltzan, baina bat-batean: *BRRRRRUUUUMMM!!!!*, burrunba ikaragarri bat entzun zen Ezkiogako txoko guztietan.

Pedro salto batean zutik jarri zen eta, hortzbikoa hartuta, lau pausu atzera eman zituenerako aitaren besoa dagoeneko bere sorbalda somatu zuen. Biak, txinparta eta kearen olatua karobiaren ahotik ateratzen ikustean, jabetu ziren ganga bertan behera erori zela eta horrekin batera Igartubeiti baserriko ametsak ere bai.

Pedrok, guztiz atsekabeturik, eskuak burura eramane zituen negar malkoak eutsi nahian. Aitak besoa sorbalda gainetik pasaz, baserriko bidea elkarrekin hartu zuten iluntasunean ezin baitzuten ezer ez egin. Biek txintik esan gabe jaitsi zuten bidea, burumakur, ulertzen baitzuten harriaren kontrako lehia handiegia zela beraientzako.

Aste betean inor ez zen ezta hurbildu karobira, alde batetik, hozten utzi behar zelako ezer ikutu aurretik eta, bestaldetik, galtzailearen sentsazioa nagusitu zelako nekazari famili hartan.

Martin azaldu zen arte, Pedro ez zen ezta karobia begiratzera ausartu ere. Esandako egunean Martin itzuli zen Igartubeitira. Gangaren erorialdiaren berri bazuen, eta bazekien ere, hirugarren egunetik aurrera kare-bizia egina zegoela. Zuhurtziaz jokatu zuen eta behar zena baino egun bat gehiago piztuta edukitzea eskatu zien. Horregatik, ganga erori zenerako, kare-bizia egina izango zela jakinarazi zien.

Lagundu zuten bizilagun guztiekin batera ospatu zuten beraein arrakasta. Geroztik, kare-bizia lortzen den bakoitzean karobi-ezteia ospatzen da baserrietan.

AIZTONDO